LANKIDETZA ESPARRU HITZARMENA HERNANIKO UDALAREN ETA EKHILUR KOOPERATIBAREN ARTEAN

BERTARATUAK

Alde batetik, Xabier Lertxundi Asteasuinzarra, Hernaniko Udaleko alkate-lehendakaria den aldetik, HERNANIKO UDALAren izenean (IFK: P-2004300F) eta ordezkari gisa, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean 21. artikuluak xedatutakoaren arabera.

Eta bestetik, Miguel Angel González González, EKHILUR kooperatiba Elkartearen lehendakaria eta bere izenean. Ekhilur, irabazi asmorik gabeko kooperatiba da, Euskadiko Kooperatiben erregistroan inskribatua, 20170036 zenbakiarekin.

Biek, beren izenean eta eskubidean, goian adierazitako erakundeen ordezkari gisa, eta kontratatzeko ahalmena eta legitimazioa elkarri aitortzen diote, TOKIKO MONETA SOZIALAREN ERABILERARAKO LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatu dute, eta horri jarraiki,

ADIERAZTEN DUTE

1.- Egungo erronka globalen testuinguruan, herritarren beharrei herri gisa erantzuteko prozesua jarri du martxan Hernaniko Udalak: *Hernani Burujabe*.

Hernani Burujabe herri gisa burujabetza, justizia soziala eta ongizate handiagoa eskuratzeko asmoz sortutako proiektua da, eta eguneroko bizitzan beharrezkoak diren arlo nagusietan subiranotasunerantz joatea da bere xedea.

Bide horretan, hainbat erronkari aurre egin beharko dio: energia modu jasangarriago batean kontsumitzeko erronka; zaintza sistema duin bat eraikitzeko erronka; pobrezia eta bazterketa soziala murrizteko erronka; teknologia baliabideak (gero eta beharrezkoagoak) guztion eskura egotea bermatzeko erronka; tokiko ekoizleak, merkatariak eta produktuak sustatzeko erronka...

2.- Tokiko ekonomia dinamizatzeko eta indartzeko tresnetako bat moneta burujabetza da.

*Hernaniko Merkataritzaren Ekintza Plana 2019*an jasota dago, moneta lokala tokiko merkataritza sustatzeko ardatzetako bat bezala (5. ardatza, 5.1 lerroa) eta praktika horren hainbat erreferentzia aipatzen dira: *Eusko* Iparraldean, *Ekhi* Bizkaian, *Txanpon* Nafarroan, *Rec* Bartzelonan eta *Costavales* Galizian.

Hori dela eta, Hernaniko Udalak agente aktibo izan nahi du eraldaketa horretan.

3.- Hernaniko Udala Ekhilur kooperatibaren bazkide laguntzaile da.

Bazkide laguntzaile izan eta Ekhi izeneko moneta soziala martxan jartzeko akordioa hartu zuen 2021eko otsailaren 23ko osoko bilkuran. Ekhi moneta sozialaren erabilera lagungarria izango da Hernanin %100 tokiko merkataritza, ekonomia jasangarria eta solidarioa bultzatzeko.

Hernaniko Udalak Tokiko Moneta Sozialaren erabilerarako Dirulaguntza oinarriak onartu ditu. Ekhilur kooperatibak dirulaguntza horren kudeaketarako Udalaren

erakunde laguntzaile gisa jardungo du, Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-Laguntzen Lege Orokorrak 12. artikuluan xedatzen duen moduan.

***4.- Ekhilur* irabazi asmorik gabeko kontsumo kooperatiba bat da.**

Kontsumitzaile, enpresa, elkarte eta erakunde publikoak biltzen dituena, inguruko ekonomia dinamizatu eta indartzeko. Kooperatiba guztietan bezala, batzarrak gai garrantzitsuei buruz erabakitzen du, bazkide den pertsona edo erakunde bakoitzeko boto batekin. Beraz, herritarren esku dagoen tresna bat da, dirua gizartea eraldatzeko elementu gisa erabiltzen laguntzeko.

Bi aldeek bat egiten dute ekonomia jasangarria eta solidarioa bultzatzeko jardunean, toki ekonomia indartzeko tresna gisa.

Bi aldeek egoki ikusten dute tokiko moneta sozialaren erabilera sustatzea, kasu honetan Hernaniko Ekhi moneta sozialaren erabilera.

Hori ikusita, bi aldeek lankidetza hitzarmen honen bidez elkarrekin jardutea adosten duten ondorengo helburuak lortzeko:

HELBURUAK

1.- Herrian zirkuito ekonomiko itxia sortzea eta mantentzea, tokiko ekonomia eta merkataritza indartzeko.
2.- Herritarren erosketa ohiturak aldatzea, erosketak herrian egitea sustatuz, ekonomia jasangarria bultzatu ahal izateko.
3.- Komunitatea indartzea (herritarrak, enpresa txikiak-ertainak, Udala...), lehiatu beharrean, inguruko bizitza soziala eta ekonomikoa hobetzen lagunduaz.
4.- Hurbiltasun-ekonomia indartzea, ikuspegi solidariotik, gizarte-ongizatea eta justizia ekarriko duten balioak hobarituz eta sustatuz.
5.- Udalerriko hiri-ekonomia dinamizatzea, beste neurri batzuen osagarri eta indargarri gisa jardunez.

KLAUSULAK

LEHENA. Erakunde laguntzailearen izaera.

Hernaniko Udalak, tokiko merkataritza, ekonomia jasangarria eta solidarioa bultzatzeko tokiko moneta sozialaren erabilerarako dirulaguntza oinarri arautzaileak onartu ditu. Aipatu oinarrien 7 artikuluan xedatzen da Ekhilur kooperatiba dirulaguntza horien banaketarako erakunde laguntzailea izango dela. Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak 12. artikuluak xedatzen du erakunde laguntzaileen izaera. Hitzarmen honen kudeaketarako Ekhilur Kooperatibari erakunde laguntzailearen izaera aitortzen zaio. Erakunde laguntzailea izango da dirulaguntza ematen duen organoaren izenean eta haren kontura, dirulaguntzarekin zerikusia duten ondorio guztietarako, funts publikoak onuradunei eman eta banatzen dizkiena, oinarri arautzaileetan hala ezartzen denean, edo dirulaguntza kudeatzen laguntzen duena, jasotako funtsak aldez aurretik eman eta banatu gabe. Funts horiek ez dira inola ere beren ondarearen osagaitzat hartuko.

BIGARRENA. Ekhilur kooperatibaren betebeharrak:

1. Plataforma erabiltzeko prestakuntza eta Ekhi moneta sozialaren erabileraren inguruko laguntza, pertsona erabiltzaileei, negozioei eta norberaren konturako langileei.
2. Ekhia erabiltzeko zirkuituak Hernaniko eta inguruetako dendetara, elkarteetara eta enpresetara zabaltzea.
3. Ekhia onartzen duten hornitzaileak bilatzea, Hernaniko dendei erabilera errazteko.
4. Enpresei eta norberaren konturako langileei Ekhiak eta Ekhilur sistema merkataritza mailan kudeatzeko aholkuak ematea, Ekhien birzirkulazioa errazteko eta euroetara aldatu beharrik ez izateko.
5. Adierazle ekonomiko agregatuak sortzea, programatzea eta mantentzea, merkatarien elkarteak zein Udaleko Ekonomia Sailak kontsultatu ahal izateko. Adierazle horiek merkatariekin eta Udal teknikariekin adostuak izango dira.
6. Hernanin Ekhi moneta sozialaren erabileraz sentsibilizatzeko hitzaldiak antolatzeko laguntza (hitzaldi eta hizlarien egitaraua), beste leku batzuetako antzeko esperientzia dutenei partekatzera gonbidatuz.
7. Udal mailan Ekhi moneta sozialaren ordainketa sistema integratzeko aholkularitza; merkatariekin, enpresekin, erabiltzaileekin eta elkarteekin interakzioa errazteko.
8. Aholkularitza ordezkari publikoei edo enpresen ordezkariei proiektuaren aurkezpen publikoak egiteko. Aurkezpenen berrikuspena eta idazketa, baita prestakuntza espezifikoa ere ematea.
9. Hernaniko proba pilotuaren aurrerapena dokumentatzen duten albisteak eta argitalpenak idaztea euskarri ezberdinetan, bai online, bai offline.
10. Ekhilur sistema Hernanin zabaldu nahi duten boluntarioen dinamizazioa.
11. Hernaniko Ekhi moneta sozialaren sarean erabiltzaileen altak eta inzidentzien kudeaketa.
12. Onuradunen eskakizunak dirulaguntza oinarrietan jasotako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzea.
13. Onuradunei dagokien Ekhi kopurua banatzea.
14. Justifikazio txostenak aurkeztea. Lau justifikazio txosten aurkeztuko dira:
    - Hobari bidezko dirulaguntzei dagokionez, 3 justifikazio txosten partzial. Lehenengoa, lehendabiziko hiruhilekoari dagokiona, bigarrena bigarren hiruhilekoari dagokiona eta azkena, urteko bigarren seihilekoari dagokiona.
    - Bukaerako justifikazio txostena: hitzarmen honi lotutako jarduera-planeko ekintzen eta helburuen memoria eta ebaluazioa.
15. Justifikazio txostenen edukia:
    - Diru-funtsaren mugimenduen berri emanaz, eta hitzarmen honen kontura egindako gastuena.
    - Klausula honetan jasotako kudeaketa egintzei buruzkoa.

Oharra: Ekhilur kooperatiba elkarteak jarduera-plana aurkeztu du, hitzarmen honen eranskin gisa. Jarduera-planaren edukia: Ekhilurrek egingo dituen lanak, jarriko dituen baliabideak, kostoak eta hauen azalpena...

HIRUGARRENA. Dirulaguntza zuzena eta ordainketa modua.

Lankidetza Hitzarmen honetan jasotako helburuak eta betebeharrak burutzeko, Hernaniko Udalak 55.000 euroko dirulaguntza zuzena emango dio Ekhilur kooperatiba elkarteari. 2025eko udal aurrekontuetan jasotako partida izendunaren kontura: 1 1520.481.03.431.00 2025 (7102) Dirulaguntza Ekhilur Hitzarmena.

Ordainketa moduak:

- % 60 hitzarmena sinatzerakoan.
- Gainerako % 40, bukaerako justifikazio txostena aurkezterakoan.

LAUGARRENA. Iraupena eta justifikazioa.

Hitzarmen honen iraupena, 2025/12/31 artekoa izango da. Hitzarmena luzatu ahal izango da, berariazko ebazpena arrazoitua emanez, gehienez ere beste urte betez.

Hitzarmenaren indarraldia bukatu eta hiru hilabeteko epean, hitzarmenaren ebaluazioa eta zuriketa gauzatuko da.

BOSGARRENA. Izaera pertsonaleko datuen tratamendua.

Behean sinatzen duten bi aldeen artean ezarritako lankidetzarako konpromiso honek beregain hartuko ditu, oro har, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko araudiak jasotzen dituen betebeharrak, eta EAEren eremuan indarrean dagoen legedia bereziki.

Aurretik adierazitakoa kontuan izanik, eragileek, zerbitzuek eta programek akordioan lankidetzarako definitutako edozein jarduketa burutuz gero, gai hauetan zehaztutako printzipioak bete beharko dituzte, batez ere datuen kalitate, proportzionaltasun, baimen, informazio eta konfidentzialtasunaren inguruko printzipioak, baita araudietan xedatutako derrigorrezko segurtasun neurriak ere.

SEIGARRENA. Araubide juridikoa:

Bi erakundeek, hitzarmen honi aplikatu behar zaion araubide juridikoari dagokionez, hurrengo arauen arabera jardutea aurreikusten dute: Diru-Laguntzen Lege Orokorra (38/2003 Legea, 2003ko azaroaren 17koa) eta lege horretako araudia garatzeko Errege Dekretuan (887/2006 Errege Dekretua, 2006ko uztailaren 21ekoa) ezarritakoa izango da.

Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak 12. artikuluak xedatzen du erakunde laguntzaileen izaera.

Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak 16. Artikuluan eta 16887/2006 erregelamenduaren III. Kapituluko III. Atalean jasotzen ditu lankidetza hitzarmenen baldintzak.

Ekhilur Elkarteak aitortzen du ez dagokiola 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorreko 13. artikuluan erakunde laguntzaile izateko ezarrita dauden debekuetako bat ere.

ZAZPIGARRENA. Dokumentazio gehigarria.

Hitzarmenarekin batera ondoko dokumentazio gehigarria eransten da:

- Kooperatibaren Estatutuak.
- Kontu zenbakia akreditatzen duen agiria.
- Ogasuna eta Gizarte Segurantzarekin egunean dagoela adierazten duen ziurtagiria.
- Jarduera-plana.

Eta dokumentu honetan jasotakoarekin eta erabakitakoarekin ados daudela erakusteko, bi aldeek agiri honen bi ale sinatu dituzte adierazitako tokian eta egunean. Aldeetako bakoitzak agiri honen ale bat gordeko du.

Miguel Angel González González
EKHILUR koop. Elkarteko Lehendakaria.

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra
Hernaniko Alkatea